

# Giza eskubideak 'Trump aroan'

Jon-Mirena Landa Gorostiza

EHUko Giza Eskubide eta Botere  
Publikoen Unesco katedraren zuzendaria

**E**z dago modurik, egunak joan eta egunak etorri, Trump presidenteaz ahazteko. Egutero komunikabideetan. Egutero dena hankaz gora jarritz. Gainera, ez du ematen bere kasuan erabakien gordintasuna apaintzekotan dabilenik. Interes ekonomikoak ageri-agerikoak dira, ezkutatu gabe, hartzen dituen erabakietan.

Interes ekonomiko horiek gida-lagun ez ezik lehentasunezkoak ere badira bestelako irizpideen gainera: hala nola giza eskubideen defentsa eta horren muinetako bat den zuzenbide-estatuaren defentsaren gainera. Pertsonak ez omen dira garrantzitsuak: bigarren mailara pasa daitezke «(bere) amerikarrak» ez badira. Gazatarrak, ukrainarrak, etorkinak... ez omen dira lehen mailako pertsonak, lehentasunezkoak. Pertsona ororen duintasuna balio gorena bezala ez omen dago erdigunean. Zuzenbidea ez dago errespetatu beharrik: *rule of law* edo legezotasun printzipioa ez omen da kontuan hartu beharrik. Eta horregatik nazioarteko zuzenbidea, nazioarteko zuzenbide penal edota nazioarteko zuzenbide humanitarioa alboratzen ari da lotsa gabe eta mundu osoaren aurrean.

Areago, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen nazioarteko antolakuntza bukatu nahi du, indarraren erabilera hutsa harremantarako irizpide nagusitzat ezarritz. Oihanaren legea, beraz, indartsuak haien burua inposatuz justizia apurrik txikiena ere nazioarteko harremanen dinamikatik at gelditzen delarik.

Horrek halako frustrazio-sentimendua dakar bai eta beldurra ere orain arte gotor-leku ziren printzipioak eta arauak behin betiko galbidean jarriak izango bailiran. Dena galduko al da? Giza eskubideen historiaren amaieran al gaude?

Ez, ez gaude giza eskubideen historiaren bukaeran: ez European behintzat. Eta hau behar bezala ulertzeko joan gaitezten historia horren hasierara. 1948. urtean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenean, giza eskubideak jaio ziren. Egia da horien ideia

gizateriaren hastapenetan galtzen dela, baina ideia horrek eskubide forma lehenengo aldiz hartu zuen mundu osoarako 1948. urtean. Hasierako egitaraua, ordea, ez zen «aldarrikapen» bat besterik. Izan ere, aldarrikapenak, nazioarteko itunen aldean, ez baitu indar loteslerik. Gomendio bat besterik ez da: gomendio sinboliko handia baina gomendia. Hasierako asmoa, ordea, sortu berriak ziren Nazio Batuen Erakundearen bihotzean giza eskubideen tresna txertatzea zen, hain zuzen ere hitzarmen indartsu baten bitartez. Hitzarmena, sendoa, bermez josia, aldarrikatzen ziren eskubideak benetakoak izan zitezten.

Baina aliatuen kontsentsua azkar hasi zen desegiten eta nazien aurkako guda irabazteko beharrezkoa izan zen batasuna apurtu zen gero guda-hotsaren giroa nagusituz. Horren ondorioetako bat, beraz,

**Egun, ematen du giza eskubideen kulturaren kontrako oldarraldi ikaragarria estreinatzen ari dela, Trump-en eskutik. Baina ez dezagun iparra galdu: gure Europa defenda dezagun, gure zuzenbide-estatua, alegia, boterearen aurreko mugak legearen bitartez kontrolatzekoa**

hitzarmena ez baizik eta deskafei-natuagoa zen aldarrikapen xumea besterik ez zela onartu.

Esandakoaren aldean, aitzitik, European giza eskubideen aro berriak beste bide bati jarraituko zion. Europa txikiturik zegoen, goitik behera. Europako Estatuaren arteko guda bukatu behar zela guztiz zabaldua zegoen eta bultzatzen hasi zen Europako Estatu Batuen ideia. Beraz, European 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala motz gelditzen zitzaigunez gero, Europako Giza Eskubideen Ituna onartu zen 1950. urtean, bai eta Estrasburgoko Auzitegia martxan jarri ere. Dakigunez, Estrasburgoko Auzitegi horrek, harrezkerotik eta gaur arte, bere lekurik ohoretsuena irabazita dauka, estatuaren gainera giza eskubi-

deen urraketak begipean edukitzen dituelako. Begipean eduki ez ezik, horiek kondenatzen ditu bere epaien bitartez. Ez dago mundu osoan horren indartsu, sofistikatu eta eraginkor den giza eskubideetako auzitegirik. Hain izan da arrakastatsua, ezen lege-munduarekin zerikusirik ez duten hiritarrek ere hura ezagutzen baitute, bai eta inbokatu ere (Estrasburgora joango gara!) beren herrialdeetan zapaldua eta modu injustuan trataturik sentitzen direnean.

Estrasburgoko Ituna eta Auzitegia, gainera, Europar Batasunaren bihotzeraino sartuta daude, horren barruan ere bere eragina zabalitzen duelarik. Aurrenekoa gutxi balitz bezala, Europako herrialde ia guztietan Estrasburgoko lana eta jurisprudenzia konstituzioetan ere sartzen da eta behartzen ditu herrialdeok beren funtsezko eskubideak Estrasburgoko erara moldatzera. Pixkanaka-pixkanaka, baina irmotasun osoz, 75 urte inguru daramagu ordena publiko europarra sortzen, non giza eskubideek lehenengo eta funtsezko DNA osatzen baitute.

European, beraz, mundu mailan egon daitezkeen arazoak gora-behera, gure etxea eraiki dugu eta unea heldu da hura defendatzeko. Gabriel Arestik zioen moduan, nire aitaren etxea defendituko dut!

Iraganean pentsatzen genuen giza eskubideen kultura esportatu ahal genuela, beste herrialdeak kutsa genitzakeela, zentzurik onenean. Jabetzen naiz europarron historiak ere bere argi-ilunak dituela: oso ilunak diren pasarteak ere bai. Baina giza eskubideen kultura unibertsala izan liteke eta agian batzuek amets egin genuen leku guztietara —betiere leku bakoitzeko kolorez— iritsiko zela.

Egun, ordea, ematen du giza eskubideen kulturaren kontrako oldarraldi ikaragarria estreinatzen ari dela, Estatu Batuetatik, Trump-en eskutik. Baina ez dezagun iparra galdu: gure Europa defenda dezagun, gure zuzenbide-estatua, alegia, boterearen aurreko mugak legearen bitartez kontrolatzekoa. 75 urtetan zibilizazioaren alde sortutako sareek, sare gordinek, haize-ufada indartsuen aurrean iraun dezaketelakoan nago, gu-geuk —alegia zuek eta guk—, denok batera indarra batzen eta metatzen badugu. Garaia da: defenda dezagun gure aitaren eta gure amaren etxea! ●

## Hizkuntzaren muga

JIRA

Maialen Akizu



**B**adakizu kontatzen gertatu zaizuna, atzo non izan ginene eta zer egingo duzun bihar. Badakizu galderak egingen, erantzuten, aginduak ematen, arrazoiak, menpeko esaldiak erabiltzen eta ez-entzunarena egiten. Grazia egiten digute hitzei egiten dizkiezun collageek —*kameloia, sukadorea, gralatea*—, eta hesteak gogortzen beste hitz batzuk jada ikasi dituzulako —«Eske minbizie zeuken»—. Kutxabankeko presidenteak esan du gure hizkuntza mugatzailea dela kanpoko talentua erakartzeko. Nik hizkuntzaren mugak zuri hainbeste gustatzen zaizun jolas horretan antzematen ditut gehien. Tarteka, hizkuntza komiko bat sortzen hasten zara, eta niri erantzuteko eskatzen didazu. «*Kiapata? Bakatona eribala*», esaten didazu. «*Alapeti*» erantzuten dizut. Eta zuk segi. Badakizu jolasa zentzugabeberia fonetikoak esatean datzala, eta ni baino hobea zarela. Niri zaila egiten zait lexikoa desegitea, sustraien arrasoetatik ateratzea, homofoniak traizionatzea. Azkenean lortu dut masailezurra hara-hona mugituta esaldi ulergaitz luze xamar bat ahoskatzen: «Arrulapenka arpekagila». Eta barre egin didazu: «Oso ondo, amatxo». ●

## Otsoa nigan



BIRA

Itxaro Borda

**P**ertsona osoa izan daiteke otso baten begirada gurutzatu gabe? Txikitatik otsoen presentziak hantu ipuinak irentsi ditugu, anbiguitatez bete amona eta txapel gorridunarenarekikoa adibidez. Hobbes filosofoak ere jendeen arteko harreman garratzen aipatzeko otsoaren metafora erabili zuen, gizakia gizakiarentzat otsoa zela azpimarratuz. Eta orain, hor dugu otsoa, gure bortuetan barrandan, alha lasaian dabil-tzan ardiei lepotik erasotzeko prest. Otsoa eta hartza. Aste honetan, hain zuzen ere, Carmelles hartz emea tiroz erail zuen Ariegeko laborariaren auzia hasi da Foix hirian.

Den-dena egin zuten abere beldurgarri — eta inproduktibo... — horien desagerrarazteko. Laborariek eta botere publikoek eskuz esku. Duela gutxi arte otsoa ofizialki babestua zen, hori ere aldatzen ari da. Negu bukaeran, Kantabriatik eratorrian etorri otso gris eder bat ikusi da Larhun mendiko sasietan tapalakatua, begi zilar kliskari, goait, ttattit eta hausnar gosetuan. Zenbait egun beranduago Bardozeko pentoketan agertu zela baieztatu zuten lekuko batzuek, baina geroztik otso-zakur soil bat ere izan zitekeelako berria hedatu da...

Ahuuu, ahuuuu... ●